

Opioaren gerra

Auxe da, garai guztietako burrukaldi bizienetatik bat.

Sortaldetik datorkiguna izan arren, sortaldeak gaur pelotea biurtzen dausku.

Drogen diru likitsa, inglesen jimel (monopolio) eta beste gauza bitxi batzuk.

M. de QUINONES'ek

GUZTIEKIKO gizon-ilteaz itzegin oi dogu. Drogen auzia sartaldeko errialde batzuetan bizi edo ez bizikoa egin jaku. Itz loiak korapillo ontatik iges egiteko erraza ondatu, moral iturria ezazu, gizartea makur-azo, erri ta herriarren ekandu onak alperrik galdu ta nortasuna ito... Eta sartaldeko lurraldeetara begiratzen bada suleza batera begiratuko bagendu lez. Eta andik da, izan da, sartaldeko koba-zulo kirats nazkagarrietatik yatorruz etorri be gure kulturaren usteltze au eta gure lanerako ta asmamenerako kimen urri au.

Eta txar onen gorenengo mailla dozu joanaren gomuta exkasa ta kontzientzi gaiztoa. Sartaldeak, na, aaztu egin nai izan dau, orain- ga urte gitxi eukita be, gogaikarri

jakun edesti naiko loia, eta beraz geure bizkar gainetik astindu nai doguna. Gaurko gizartelari ta erri-agintarien kezka ez litzateke sumindu bear atzoko droga-merkatarien eragiña gogotan artu barik. Gizaldi osoa dalarik be, bada, sartaldea gaitz orrek atz-artean eukan eta ortz-atzalkalakaz aldeztu bearra izan eban bere burua. Negozio likits orretan sartuak ziran ustez beintzat kultura aundi-koak ziran erriak. Ez dago, beraz, gaizki, gaizkiñak zentzatzeko bakarrik izanda be, sartaldeko errialdeak aurkitu daitezala atzo eurak gertatu zituen gatxetatik euren buruak aldeztu bearrean.

Inglatera'tik etorren itxas-ontzi bat

Hunter'ek diñosku bere liburu

«The Fan-Kwae a Canton» deritxonean. Forster kapitainak bere ontziaren aingura botaten eban Namoa kaian. Eta orduantxe urreratzen jakon aurrekaldera «Zerutar Aginterriko» zii (ontzi) loi bat. Mandariñak, ingles ontzira igonik, kapitaina agurtzen eban zerem oni aunditan. Kapitainak bere aldetik jarlekua eskiñi eutsan bere arrotzari, eta arrainkia jateko. Gero asi zan bien arteko izketa.

— Ba-daki berorrek —iñotsan kapitainak— ni ez nintzala kaian sartuko, ortara beartu ez ba'ninduen aize biurri batzuk. Singapur' tik Canton'era niñoian, baiña Namoa'ra urreratu bear izan dot naitaez, jatekoak eta ura bear dodazalako.

Eta mandarin agurgarriak erantzuten eutsan adeitsu:

— Ondo dago, jauna. Baiña kapitain jaunari erreguz eskatzen dautsot, janari-edari orniketak egindakoa, arik ariñen alde egin dagiala emendik.

Eta agindu bat irakurteko eskatu eban. Kaisar'en agindu bat, ez geiago ez gitxiago. Tao-Kuang'en idatzia egoan, 16'garren illargiaren eta laugarren Eguzkiaren 17'garren urtean izenpetuta. Bertan iñotsen sartaldeko itxastarrak Canton kaia zala portuetatik azketa libre bakarra, enparau lurraldeetatik eltzen ziran Arrotz basa-

tientzat noski. Zerutar Aginterriko beste lurraldeak eta itxasaldeak itxirik aurkitzen ziran edozein joan-etorritik. Aren Aunditasunak, baiña, kontuan eukazan itxaso zearko txangoak euki oi dabozan eragozpen eta arriskuak, eta ezin zeikean galazo ezelan be jantziak eta ura bear ebezan ontziak Txina'ko beste edozein portutan be egotaldi laburrak egitea. «Baiña euren orniketak amaitu baizen laster, andik alde egin bear ebean».

Joan ziran mandariñaren zerbitzariak, kapitainaren ordezkotik be aldendu ziran. Eta tratu mañia asten zan.

— Zenbat droga-kaja daukazu, kapitaiña?

— Ia 200, jauna.

— Danak geratuko dira emen Namoa'n?

— Ederto; guk merkatua arakatu nai genduke apur bat.

— Arrisku aundikoa da, jauna. Amoy'n, oraintsu oindiño, bera moztu dautsoe merkatari batzuk. Emen itxiko ba'zenduz, oñe.

— Zeure baimenarekin, jauna?

— Zelako baldintzetan dan, kapitain.

— Baldintzak, jauna? betikoak. Eta antxe geratzen ziran 200 kajak. Adiskidetasunezko zurrutadi bat salerosle bien artean, alkarturua makurtzen guren batzuk gaitz-kideen irripar maltzurra. Diruak ez dauko aberririk, eta

usain txarrik be, datorrela dato-
rren lekutik. Mandarin jaunak ba-
ekian. Baita Forster kapitain jau-
nak be. Eta mandarinaren eta ka-
pitainaren artean dana joian egin-
go garbi, egoki, prestutzat.

Salgairik errez eta estimagarriena

Amazortzigarren gizaldi osoan
Txina'ko Kaiser'ak galazorik eu-
kan edozelako merkatari-artu-
emona Europa'ko itxas-gizona-
kin, «txakur burudun basati orrei-
kaz». Sortaldeko kaietara eltzen
ba'ziran, opagai lez izango zan.
Amabi salerosle aundik, txinarrak
nunbait, Kaiser'gandik artuta eu-
ken merkalgo-monopolioaren es-
kubidea: eurak ziran bakar-baka-
rrik itxas gainean erbestetarrakaz
sal-erosketako artu-emonak egin
leikezanak. Lege-azka orren or-
dainez, kaiser-kutxai, jakiña, zer-
ga ikaragarriak ordaindu bearko
eutsezan. Baiña ba-dakigu: «legea
dala, sare-arte be bai». Ingelan-
dar merkatariak iruzurrera jo
eben: ofizialki legezko saleros-
gaiak bakar-bakarrik eroiezan;
ixillean, ostera, aren zama ariña
zan, erreza ta saltzean urteera
aundikoa: drogak.

Eta gero, morfina naiz marihua-
na artzea oitura egin zanean, or-
duan lege bat otsegin zan, gaitz-
errudun nabarikoa: osasun-arlo-
rako bear ziran drogak. Baiña go-
goratzen ba'dogu 1800'garren ur-

tean Makao'n 4.000 droga-kaja
sartu zirala, osasun-atxakiok du-
darik bage, gaizkille dollor biurte
ziran. Gaizkiñak benetan, eta tu-
nar agintariak erne jarri ziran, or-
durarte egin ez eben baiizen erne
lege gogorrak emanaz orren kon-
tra. Baiña esku latxagoa bear zan
sartaldeko merkatarien oitura zai
eta txarrak atera ta erauzteko. Ga-
bak gauagoak dira Txina'ko lu-
rralde garai areitan; itxas-omina
ariñagoak, txinar merkatariak
duakezan batez be: salgaiak lozte
banatzen dira; barrukoak azka-
emon azkarra dabe, ta droga
ordu gitxitan banantzen dira.
Kontrabando ikarugarria egun-
ro.

«Goikoak lagundurik eta Kai-
ser agintarien erruz, opio edo lo-
bedarraren joan-etortria gero ta
gorago doa; eta 1800'garrenean
lau milla kaja atera
1820'garrenean 20.000 igon dabe
Portuetatik kanpo, urte sam-
ingles barkuen kañoiak zaitzen
egin oi dabezan aruntz-omintza
jokoak».

Inglesen naikunak

Oiña ipiñiz gero, kapela be ipiñ
bear. Inglesak olan zerta iten
itxura denez. Eta Koroiak Naper
ofizialari agindu eutsan jar euren
Txina'gaz legezko artuemonak
Mandarinak edo azpiko jaun-
txoak sumindu ziran. Onetik, in-



WASKITA EASTE 24 berela, zenbat neska-mutill drogak menderatuta?

beti uste izan eben ingles ontziak, drogak eroiezala bakarrik, eta ez konpromisuko ofizialik. Inoiz be ez eben eurak inogaz be bardiñeko artu-emonik euki. Atzerritik etozan Basatiak, Txina'n sartu bear eben Eguzkiaren Seme eta Zerutar Aginterriko Nausiaren menpeko zergalari apalari egokionez bakar-bakarrik.

Napier jaunak, Canton'era eldurik, eskutitz «ofizial» batzuk bialtzen ditu. Ez dira ontzat artuak, «barruan dakazan ideia ta gogaietan apaltasun gitxi erakusten daualako». Eta ontziaren barren-aldeak indarrez artzen dira, bertan datorrenaz jabetzeko. Baita Napier'i agindu be, arik ariñen Canton'go nasatik alde egiteko. Napier'ek, baiña, bere erriaren antustea erakutsi nai dau. Eta Lu errege-ordeagaz eukitera joian ikustaldian, jarlekuak jartean sortu zan eztabaida suster bakoan, une ortararteko ar-emon batzak apurtu ta txinarren aurrean indar-erakusketa bat egiteko gertatzen da.

Ez dago inor loaren mende. Txinarr salerosleak ugaritu egin dabez oso euren korbeta ta ontzitxoak. Nasaren erdian aurkitzen da Napier bere itxas-ontzi biakaz: «Andromaka» ta «Imogene». Ezin da itxasoratu, aiza me-mea dabil eta. Zori txar aundiagorako, sukar gaiztopean jausten da Napier. Txinarr

ziriak (ontziak) estutzen dabez lau alderdietatik. Korbetak, barriz, estuago erasoten. Napier'ek naitaez kuku jo bear. Zerutar Aginterriak garaipena ospatzen, eta ugarte areitako jauntxoak lurrrera erasten.

Gero dator burruka, 1839'an eta mariñelen arteko asarre-aldibatean, Canton'go txino baten erailketa gertatzen da. Errudunak eskatzen dabez. Elliot kapitana ez ditu emon nai bere gizonak. Aingurak jaso ta Hong-Kong'en gordetzen da. Ingles parlamentuak «zuzena» deritxo gain datorren mokoaldiari. Eta bialtzen ditu gidari-taldeak eta barkuak. Ur-ertzak bonbaz ler-azirik, Bixien erriberan lurra artzen da, eta lurrean zear Pekin bertako atearaino sartzen. Canton, Amoy, Shanghai, dana jausten bizkor be bizkor inglesen mende. Eta 1842'an Nankin'go egiunea izenpetzen da, kondiziño latz-gogorakin:

- Txina'ko bost portu zahala inglesen sal-erosketa guztirako;
- norbere konsul-etxeak euren joan-etorrietarako, Canton'go zergetxetik igaro bage;
- Hong-Kong Ingles Koroiarena izango da, osorik.

Drogari buruz, gerraren errozoia izan dan opioari buruz, ezer be ezta esaten, 1839'an eta Lim-Tse Tsu'ren gobernu indiar

...ean bakar-bakarrik lortzen da
...terragandik opio zainitzeko
...geiago, eta aldi berean
...jaurtiak dira Canton'en
...goran 20.000 juka.

Zortzi milloi opio (lo-bedar) erre-
tzaille

...narrak, alan be, eunetik
...drogatzen jarraitu eben. Li-
...gizartelariak inoan, XIX
...gizaldiaren bigarren za-
...berak ikusi al izan ebala no-
...zelako neurrian-drogatzen
...xinar-erria, ingles ontziak
...eutsotzen opio lillurako-
...Zortzi milloi erre-tzaille, ez
...ezgitxiago! Drogatutakoen
...egin zan Shanghai, mun-
...hazikoena egin be. Erretzai-
...barriz, kale-egai guztietan
...ziran. Gero, eta apurka
...barne-lotsaizun sinisgaitz
...jota letxe, kale nagusienak
...joan ziran, uritik kanpora
...goitzak jarritik.

Opio-erretzaille bat laster ez-
...da, beregandik urtetan dan
...naasi-ezinetik, eta inguruan
...dauan girotik. Bere

burnean argi erdi-piztuak, etzante-
ku luze batzuk, zaretak azpian,
erretzailleak eurtan iltzeat. Tai-
narren errelekua Europa zaurreko
kaife-otzen anizekoa dozu, biltoki,
igesleku, sasi-lorako etzango. Eta
guztiak erre bi dute an, demokrazi-
nastu ta zakarrerean: aberatsak,
txitxak, zaurreak, amar urteko
umeak... Zerutar Aginterriko Kai-
ser'ek, bere jauregiotan, erretzai-
lleak daukaz, eta eurtara joan oi-
dira noizik bein, santu zurrin.

Liberman'ek guzti au margoztu
ta edesten dauku egizate ta aldi
berean naiko lotsakor. Baita
orain, gizaldi bat jonda gero gau-
zak gogoratzen doguzanetan, gi-
txiago arritu ta geiago lotsatzeko
sasoia dogu. «Kulturadun» erriak
izan ziran, ba, jakintsu zaurrei ar-
azo eutsoenak ez bakarrik bitara
itsusi ta lotsagarria, baita gizaldi
bat be, laterri batentzat laidega-
ria, ezespeneren berengo maila-
ri erosten dauama. Eta guztia gar-
bera, saleros-mailako interesen
izenean eta aintzarako.

Ain DINAINDIA'k enkeratzen

Bi esnera zaur

Balitz-lako eienak (ferrotak) ez digu ogirik eiotzen.

Biera on da dabiltena, eta ez geldirik dagoena (Oihenart).